



❖ MOLOTOFF IRRATIA

Mariskoa zozketatuko dute

Molotov Irratiak marisko sorta ederra zozketatuko du gaur, urtero bezala. Goizeko 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara txartelak saltzen egongo dira plazan, musikaz lagunduta. 50 xentimotan izango dira txartelak eta 20:15etan egingo dute zozketa, zuzenean, sariduna azaldu arte. ||

❖ GAZTE ASANBLADA

Mus txapelketa, kazerolada eta salda beroa

Gazte Asanbladak antolatuta, gaur, arratsaldeko 17:00etan, mus txapelketa jokatuko dute gaztetxean; parte hartzeko bertara joan besterik ez dago. Gaueko 01:00etan, urteroko kazerolada egingo dute, plazatik abiatuta. Goizeko 07:00etan berriz, kalejira egingo dute, herri kantak abestuz, plaza ingurutik abiatuta gaztetxe-raino, bertan salda bero-beroa izango baitute zain. ||

❖ MUSIKA

'Gasangreb' Loiolan

Gasangreb musika talde hernaniarrak Loiolako gaztetxean joko du gaur, 00:30etatik aurrera egingo den Punkillon jaietan. ||

'Aritz Sound System' Zizurkilen

Aritz Sound System musika jartzailea Zizurkilen izango da gaur, Aurrera tabernan, 01:00etatik aurrera. ||

'Dj Rockaiet' gaur Apeadero tabernan

Apeadero tabernan *Dj Rockaiet* izango da gaur musika jartzen. ||

Bihar ez da Hernaniko Kronikarik izango.

Joxe Ramon Beroitz 'Mitxirrika' eta Joxe Mari Tomasena «Errondan ibiltzeko erreleboa etorriko da... gu gure partea egiten ari gara»

MITXIRRIKAK eta Joxe Mari Tomasena ia bizitza osoa daramate kantuan. Gaztetan hasi ziren, katurako afizio haundia baitzen; orain errondan ibiltzen dira, Ohitura Zaharrak Abesbatzarekin. Gaur ere aterako dira, 17:15etan, plazatik abiatuta.

Non eta noiz da hitzordua?

Mitxirrika: 17:15etan abiatuko gara plazatik zaharren egoitzara. Ospitale Zaharrean hasi ginen kantari eta orain zaharren egoitzara joaten gara; gero, 18:00ak aldera, kale bueltari ekingo diogu: Urumea kalean behera jaitsiko gara, Zinkoenean; Kale Nagusitik gora Karkabara, eta handik plazara. Lehen, urte batzuetan Tiburcio *Patxi* Odriozolaren etxeraino joaten ginen, gaixotu zenean.

Joxe Mari: Garai batean Txirrita ibiltzen omen zen San Joanetako buelta egiten baina ez Urtezaharretakoa... Gero urte batzuetan galdu egin zen ohitura, gerra garaian eta

“Beti kopla bera kantatzen dugu, 'Dios te salve'; bertsolariak dira saltsa jartzen dutenak; hasieran hotz egoten dira baina berotzen direnean, ezin ixildurik ibiltzen dira”



Mitxirrika eta Joxe Mari pronto daude aurten ere kantuan aritzeko, usadioari eutsiz.

gerraostean, eta berriro erreku-peratu zuten.

Galdu egin zen ohitura?

Mitxirrika: Galdu, edo galarazi. Kuestioa da urte batzuetan ez zela egin, eta gero *Patxi*, Tiburcio Odriozolak, ekin zion, 80garren hamarkadaren hasieran; koroa zuzentzen zuen berak.

Ohitura Zaharrak abesbatza. Zenbat lagun biltzen zarete?

Joxe Mari: Gora behera haundiak izaten dira baina bihar

20-30 bat lagun izango gara. Eta zer kantatuko duzue?

Joxe Mari: Beti kopla bera kantatzen dugu, *Dios te Salve*; bertsolariak dira saltsa jartzen dutenak; hasieran hotz egoten dira baina berotzen direnean, ezin ixildurik ibiltzen dira. Laguntzaileak ere izaten dituzue.

Mitxirrika: Bai, dozena erdi bat bertsolari edo gehiago izaten dira; trikitilariak Oialu-metik etortzen dira eta herriko txistulariak ere etortzen dira.

Hernaniko Ohitura Zaharrak Abesbatza egun seinalatuetan bakarrik ateratzen al da?

Mitxirrika: Bai, hiru egunetan: Santa Ageda, San Joan eta Urtezahar bezperetan. Maindirearekin ibiltzen al zarete?

Joxe Mari: Garai batean halaxe ibiltzen ginen; jakina, dirua balkoitik botatzen zen orduan, eta iluna izaki, maindire zuria behar. Gero poltsa bat ere ibili genuen eta orain ez dugu dirurik biltzen. Urte asko errondan?

Joxe Mari: Urte asko; mutil koskorretan hasi nintzen.

Mitxirrika: Joxe Mari bezala, urte mordoska...

Kalebueltan non geldituko zarete?

Mitxirrika: Plazan, Plaza Berrin, Zinkoenean, Karkaban ere kantatzen dugu, baina bestela, geldialdi gehienak, tabernetan egiten ditugu. Zerbait jasoko duzue ordainetan?

Mitxirrika: Bai... ardoa, sargardoa, garagardoa... batzuetan gazta eta urdaiazpikoa...

Joxe Mari: Gehienetan zer edo zer ematen digute, ezarria berotzeko zerbait...

Edonork parte hartu dezake?

Joxe Mari: Bai, gainera gustora hartuko genituzte, gazteak batez ere, eta emakumeak ere animatu nahi ditugu, gehienak gizonak baikara...

Mitxirrika: Gogoa eta umore ona besterik ez dira behar. Eta baseritarrez janztea, goiko parte behintzat...

Zergatik parte hartu Gabon Zaharretako errondan?

Joxe Mari: Garai bateko ohitura zaharrak mantentzeko: musika, bertsolariak... Eta kalea asko girotzen da!

Mitxirrika: Garai batean kantuan asko egiten zen eta ohitura hori berreskuratzeke hartzen dugu parte errondan. ||

kinóa

TAILER-DENDA BERRIA HERNANIN

kinóa

ESKUZ EGINDAKO BITXIGINTZA BEREZIA

Gaur irikitzen ditugu ateak lehen aldiz,
zatoz gu ezagutzera !!!

URTE BERRI ON !!!

Kardaberaz kalea, 23 - Hernani.

Tel: 666 331 501

www.kinóa.tk

TELEFONOAK | Taxiak: 943 550093 | Udaltzaingoa: 943 333288 | DYA: 943 464622
Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037
| Anbulatorioa: 943 006666 | Jokalari anonimoak: 943 331103 | Alkoholiko anonimoak: 943 331103
FARMAZIAK | GAUR: Egunez: Etxebeste Elkano 2 - 943 552087 | Gaeuz: Correa Perkaitezgi 8 - 943 336022
FARMAZIAK | BIHAR: Egunez: Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 | Gaeuz: Castilla Urbieta 7 - 943 552941

EGURALDIA
GAUR Urtearen azken egunean, hego-haizea. Ondorioz, giro epelaz gozatzeko aukera izango dugu. Beroenak 14 °C-ra helduko dira. Zeruan ostarreak, beraz, eguzkitan giroa oso atsegina izango da.

BIHAR Goizaldean, ateri eutsiko dio, baina aurreko egunetan baino hotz handiagoa egingo du. Arratsaldean euria egin dezake. Eguneko tenperatura jaitsi egingo da. (euskaitzetan)

Eroskiren aparkalekua jaiegunetan irekita

Udalak akordioa lortu du Eroskirekin jaiegun eta igandeetan aparkalekua irekita egoteko, goizeko 09:00etatik 23:00etara.

HERNANIKO Udalak akordioa sinatu du Eroskirekin jai egun eta igandeetan Agustinetako aparkalekua irekita izateko. Guztira 55 plaza gehiago izango dira herrian.

Hitzarmena medio, urtarilaren leian, osteguna eta jaieguna, aparkalekua irekita izango da; beste hainbeste, urtarilaren 4an, igandea, eta horrela aurrerantzean jaiegun eta igande guztietan.

55 plaza gehiago

Agustinetako aparkalekuari

esker, herrian 55 aparkaleku gehiago izango dira herrian, horietako bi elbarrientzat. Horrek, Udalaren esanetan, arazo guztiak konponduko ez baditu ere, arindu egingo ditu.

09:00etatik 23:00etara

Aparkalekua irekita izango da jaiegun eta igandeetan, goizeko 09:00etatik 23:00etara. Ordutegi horretatik kanpo, kotxerik geratzen bada barruan, Udaltzainek zepoa eta isuna jarriko diote. Hartara, Eroskik ziurtatu nahi du lan egunetan, denda

irekitzean, kotxerik ez dela izango barruan. Udalaren esanetan, Eroskik jarritako baldintza «ez da asko eskatzea, bere aparkaleku pribatua uzten duenak, behar duen libre izatea».

Ez du kobratuko

Udalak eskerrak eman nahi izan dizkio Eroskiri erabakiarengatik, «eta ez kobratzeko erabakiarengatik». Udalak antzeko gestioak egiteko asmoa adierazi du, «aparkaleku pribatuei erabilpen publikoa eman ahal izateko». ||

↻ Jasota Bezala

6 Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa 7 Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira 4 Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu 4 Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

2009 ATE JOKA DUGU

Konturatu gabe igaro da 2008 urtea eta berriari harrera egiteko puntuan gaude.

Hobeto nahian 2009ak aurrekoak baino emaitza oparagoak izatea nahi nuke, Udalarentzat orokorrean eta zuetako bakoitzarentzat partikularki, buruan dituzuen amets eta egitasmo horiek egiteko modua izan dezazuela alegia. Eta bide batez elkarrekin egin beharreko bidea xamurra izatea nahi nuke.

Beltz kolorekoa aurreikusten digute 2009 urtea, ea guztion artean hain iluna baino kolorez jantzitako egiteko gauza garen, gu behintzat guztion artean oztopoak gainditzeko lanerako prest gaude eta hala nahi duenak bidelagun izango gaitu, horretan ez egin zalantzarik.

Egoera ekonomikoa, Euskal Herriak bizi duen egoera politikoa, zein baino zein egoera nahasiagoak eta aldi berean gure inplikazioa eta ausardia eskatzen duten gaiak, burua hotz eta asmo sendoz, uanean uneko partxeetatik harantzago

behin betiko irtenbideen alde egitea eskatzen duten egoerak. Bietan ere nabarmena da orain arte gailendutako sistema agortuta dagoela eta etorkizuna bestelakoa izatea behar dugula, ezberdina eta guk erabakitakoa, eta jauntxo aberats batzuek inposatuaren ordez.

Bada 2008 urtea alkate modura ez nuela amaituko pentsatzen zuenik, 12 hilabete hauetan izandako jazarpena ez da ez nolana izan egia esan. Gauza asko gertatu diren urtea izan da agurtzera goazen hau, eta hurrengoak zerranda laburragoa ekarriko badu, denak gogoan, irtenbideetan jarri beharko dugu indarra, eta guztion indarrak horretara lotu.

Iaz bezala aurten ere alkatearen ahalegina hauxe da, Hernaniko herritar guztien bizimodua hobetuko duen bidea lantzeko konpromisoari eustea, bai politika orokorreko gaietan zein eguneroko gertakariekin zerikusia dutenetan.

Denok gara eta zarete garrantzitsuak, kolore bateko edo besteak izan, eta denon-

tzat lan egiteko aurkeztu ginen neurrian, etorkizun hobe erakitzeke lanean jarraituko dugu. Ez da bide xamurra izango, atzera begiratu besterik ez dago horretaz ohartzeko, baina oztopoak oztopo aurrera jarraitzeko prest nago, eta herritarren babesarekin urratsak ematea lortuko dugu, azken hilabetei aurre egin diegun modu berean. Hori dela eta, urtea amaitzean, herna-niarren aldetik jaso izan dudana elkartasuna eta maitasuna eskertu nahi dut, beti ere une zailetan asko arintzen baitu erasoaren zama. Mila esker bihotz bihotzez.

Gainerakoei zer esan, orain lotu ez gaituenak etorkizunean lotuko gaituen itxaropena ez dudala galtzen. Ea bada eskutik helduta aritzeko guneak eta uneak aurkitzen ditugun 2009 urtean, 12 hilabete barru atzera begira jartzen garenean zorionekoak izan daitezten oroitzapen gehienak eta zoritxarrekoak gutxi batzuk baino ez.

URTE BERRI ON!!!!!!!!!!!!!!

Marian Beitialarrangoitia
Hernaniko alkatea

◆ FUTBOLA

Labaien Torneoa gaur Zubipen

Labaien Torneoa jokatuko dute gaur arratsaldean, aurten 38garren aldiz. 16:00etan CD Hernani ariko da Kostkasen aurka; 17:00etan Kostkas ariko da Real Sociedad taldearen aurka; eta 18:00etan, Hernaniko taldea ariko da Real Sociedad taldearen aurka. 45 minutuko partidua izango dira eta 6 penaltiko txandak izango dira. ||

❖ AAM

Gaur manifestazioa egingo dute; ondoren topa egingo dute senideak gogoratzeko

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta, gaur manifestazioa izango da arratsaldeko 19:00etan, herrian barrena, Gudarien plaza abiatuta, *Gaixo larriak eta kondena beteta duten euskal presoak etxera* lelopean. Bukatutakoan, ekitaldi xume batean, topa egingo dute senideak gogoratzeko. Antolatzaileek dei egin diete herritarrei parte hartzeko. ||

◆ IES HERNANI

Datozen bi hiruhilabeteetako ikastaroak

IES Hernanik honako ikastaroak eskainiko ditu datozen bi hiruhilabeteetan. Batetik, Hobetuz-eko ikastaroak, lanean ari diren langile eta Lanbideko bulegoren batera jo duten langabetuentzat: Automatismo Programagari Aurreratuak (40 ordu); Fagor 8055 CNC Tornoa; (40 ordu); Planoak interpretatzeko ikastaroa (50 ordu); Automatismo Neumatiko eta Elektroneumatikoak (40 ordu); Fagor 8050 CNC Fresadora (46 ordu); Antenak jarri eta mantentzeko ikastaroa (40 ordu); Sistema Domotikoak-Argindar Eroaleak (30 ordu).

Bestetik, Osalaneko ikastaroak: Eraikuntzan lan egiten duten langile eta autonomoentzat, 8 orduko ikastaroa, lan arriskuen inguruko oinarritzko karneta lortzeko. Hirugarrenik, Automatismo eta Koadro Elektrikoak ikastaroa. Laugarrenik, larruzalza zaindu eta makilatzeko ikastaroa. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

- Emakume arduratsuenak adineko pertsonak zainduko lituzke, etxeko lanak egin edo gauak pasa erresidentzian. Informeduna. Deitu: 664 336 906.
- Etxe berria estrenatu ezazu, hemendik 18 hilabetera, 2 logela, aszensora, 60m² (249.000euro). Deitu: 671 124 594.
- Etxe konponketak egiten dira: iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
- BIDEA masajek. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).
- Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).
- Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Antiacne tratamendua, "Manchas". Plataforma bibratzailea. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.
- Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebra, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76
- Iniigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Argitarapen honen laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Hernaniko kronikako laguntzaile:



ORAIUNE
PROMOCIONES
ORAIUNE
PROMOZIOAK

PEÑA

OKINDEGIA - JANARIDENDA

Eguneroko zure beharrei erantzuteko, Kale Nagusian gaude.

Kale nagusia, 19 - Tel.: 943 55 23 98

YOLANDA estetika zentrua

Fotodepilazio berria
Gaztetzeko tratamendua Argi bidez
Antiakne tratamendua
Azal mantxak
Plataforma bibratzailea

ZORIONAK eta URTE BERRI ON!!

Prezio egokituak eta pertsonalizatuak

estetica@yolanda.infonegocio.com ATZIETA 2, behea. Tifoa: 943 55 32 78